



### 17:50ean Korrika!

Aimar Pineda HH2ko ikasleak eta Jon Arzubialde 1968ko lehen taldeko ikasleak hartuko dute lekukoa. Zurriolako 50 urtetako ibilbidea irudikatuz. 17:05etik aurrera Soroa eta Ategorrietako kalejirak bertako ikasle eta familiak ekarriko ditu Hurrara eta bertatik abiatuko gara Nafarroako etorbidera Elektra ondoko espaloian kokatzeko. Hortik Marino Tabuyo pareko biribigunean errotondan bira egin eta kalean behera egingo dugu berriz. Info gehiago: [prentsa-oharra](#) eta [zirkularra](#).



### LH5-6 goizpasan

LHko ikasle hauek ederki aprobetxatu dute opor bezpera egunak. Asteazkenean, Victoria Eugeniean, Giza eskubideen XVII. zinemaldian "Leo Da Vinci, Monalisa misioa" filma ikusi zuten. Ostegunean, berriz, patinaia estiloa hobetzeko aukera izan zuten Txuri Urdin izotz jauregian.



### DBH4koak Soroan

Aste honetan Soroan bisita berezia jaso dute Soroan. Hurratik DBH4ko lagunak egun desberdinetan etorri dira Korrikako ipuina kontatu eta antzeztera, dantza erakustera, Graxiren horma-irudia margotera, lekukoak egiten laguntzera, ... Elkarrekin guztia prestatu dute Korrikarako! Ikilimikilikik!



### Bolumen ikasgaiko irteera

Batxilergoko ikasleak Donostiako hainbat tokotan adierazpen ezberdinetako lanak ezagutu ahal izan dituzte. Burnizkoak, brontzezkoak, granitokoak, hormigoizkoak edo marmolezkoak... Maiz ikusi gabe begiratzen baditugu ere, hiriko biztanleak dira horiek ere bai.



### Korrika pasatakoan ttipi-ttapa segitzeko

Korrika pasako da baina ttipi-ttapa segi nahi dugu euskararen normalkuntzan. Hona Gurasoen Euskara batzordeak helarazi digun [deialdia](#). Bilera: Maiatzak 8. 17:30. Hurrako jangelan.



Erromatarren garaia bueltatu ziren LH1eko ikasleak Oiasso musean.

**Zurriola musika eskolako HH4-HH5 ikasleen emanaldia**  
Soroan, maiatzaren 3an 17:00etan

HH4 eta HH5 urteko ikasleek maiatzaren 3an emanaldi bat eskainiko dute Soroako atarian. Musika irakasleek jeltziko dituzte ikasleak emanaldira eta amaletutakoan bertan jaso ahalko dira. Musika ez diren haurrak geletan jasoko dira: HH4koak beti bezala eta HH5ekoak, 1. go solairuko gelan.

**UPACEREN MUSHATU**

SOROAN maiatzaren 3an HH4-HH5 17:00etan  
HURRA maiatzaren 4ean IKASTOLAREN EGUNA  
Dantzarik LH 1.2.3.4.5.6.DBH, abesbatza, elektrotaranga

ALEGRIA - DULANTZI MUSIKALDI 2019 maiatzaren 12an Elektrotaranga, DBHko dantzarik

ATEGORRIETA maiatzaren 20ean ZMDEko irakasleen emanaldi pedagogikoa  
HH4-HH5 4:45ean  
LH 1-LH 2 11:30ean

HURRA maiatzaren 25ean 17:30ean "euskar kantak 50 urtez" ZMDEko emanaldi  
maiatzaren 30ean gitarrako ikasleen emanaldi 17:30ean

OLATU TALKA ekainaren 2an Boulevard-ean 12:00etan 6.DANTZA TOPAKETA  
Dantzarik 1.2.3.4.5.6.DBH

6.ZORTZIKO SARRIA JUAN ANTONIO URREBETZ- MARIAN ARREGI



### OHARRAK / AGENDA:

- HH3: Zubieta. Egun pasa. Maiatzak 2. [Zirkularra](#).
- LH6: Teknologia berriak eta menpekotasuna. Ikastaroa. Goizez. Apirilak 30 eta maiatzak 2.
- DBH: Aukeragaiak 2019-20. [DBH2](#), [DBH3](#) eta [DBH4](#).
- DBH1: Antzerki saioa. Bullyinga lantzen. Apirilak 29-30.
- DBH2: Bela ikastaroa. 2C apirilak 29, 2A apirilak 30 eta 2B maiatzak 2. 15:00etan eskolak portuan amaituko dira.
- DBH3: Piragua ikastaroa. 3B apirilak 30 eta 3C maiatzak 2. 8:00etan eskolak portuan hasiko dira.
- DBH4: Ikasbidaia. Guraso bilera. Maiatzak 2. 17:30. Hurra. [Zirkularra](#).
- Jangela: Maiatzeko [menua](#).
- Ikastolaren Festa: Informazio [gehiago](#) (berria).
- 50. urteurrena - Ikasle ohien bazkaria: Bilera. Maiatzak 2. 19:30. Hurra.
- Zurriola Antzerki Eskola: Ikasleen [emanaldiak](#).
- Eskola Kirola: 20. jardunaldia. A eta B (ez dago). Egutegi eta [Irudi](#) berriak.
- Aisialdiko jarduerak haurrentzat: [Apirilak 12-16](#).
- Groseko Hautxokoa & Gazteleku: Apirilako [programazioa](#).
- Urgull Aste Santua: [Egitaraua](#).

